



## EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Luke Uribe-Etxebarria Apalategi, Euzko Abertzaleak Legebiltzar Taldeko Bozeramaile ordeak, indarrean dagoen Erregelamenduaz baliatuz, ondorengo **OSOKO ZUZENKETA** aurkezten dio Legez Besteko Proposamenari, EITBko eguraldi-mapari buruz. [10/11/02/01/0038]

### OSOKO ZUZENKETA:

“1.- EITBk meteorologiako informazio profesional, osoa eta kalitatezkoa eman beharko luke, zerbitzu publiko izaera duen aldetik eta multimediako euskal ikus-entzunezkoen artean erreferente nagusi izateko bokazioa duen aldetik.

2.- Aldi berean, meteorologiako informazioak euskal komunikaziorako gune propioa egituratzeari lagundu beharko lioke, iritzi publiko auto-erreferentziala eta Euskal Herriak duen nortasun kolektiboko ezaugarriak antolatzeko modukoa”.

Gasteizen, 2013ko urtarrilaren 23an.

Luke Uribe-Etxebarria Apalategi